

<p>IKASGAIAREN izena 1.2. Irudiaren teoria</p>	<p>Kreditoak 6 ECTS. OINARRIZKO PRESTAKUNTZA</p>
<p>Behin-behineko iraupena eta kokapena ikasketa-plangintzan Lehen MAILA eta lehen SEIHILEKOA</p>	
<p>Ikasleak ikasgai honekin eskuratzen dituen gaitasunak eta emaitzak</p> <p>- Gaitasun orokorrak:</p> <ul style="list-style-type: none"> ○ Talde-lana Helburu komunak lortzera zuzendutako lanetan beste batzuekin batera aritu, ekintzak modu koordinatuan planifikatuz, informazioa trukatzuz, erantzukizunak nor bere gain hartuz, eta gertatzen diren gatazka eta arazoei aurre eginez. ○ Ikasten ikasi Aurretiaz eskuratutako ezagutzak eta estrategiak aplikatu, ikaskuntza berriak sortzeko, prozedura eta testuinguru egokienez hausnartzuz, sortzen diren egoera guztietan ezagutza eskuratu, garatu, eta beste egoera batzuetara transferitzeko. <p>- Gaitasun espezifikoak</p> <p>-Ezagupenak:</p> <p>1.1. Argazkigintza, zinema, irrati eta telebistaren historia eta bilakaera, batetik, eta ikus-entzunezko hedabide horiek denboran zehar izan duten garrantzi sozial eta kulturala, bestetik, beraien proposamen estetiko eta industrialen bitartez ezagutzea. Aldi berean, teknologiaren eta industriaren bilakaera ikus-entzunezko hizkuntzarekin lotzea, eta kontuan hartzea bai ikus-entzunezko emanaldien kontzeptu teoriko-praktikoak, bai kontzeptuen komunikazio-sistemak, transmisio-sistemak eta haien errealitateak, bai eta irudiaren (hitzaren zentzu osoan) zeinu edo kodigoen interpretazio eta azterketa zuzena erraz dezaketen balio sinboliko eta kultural oinarritzakoak ere.</p> <p>-Trebetasunak:</p> <p>2.5. Argazki-produkzioa antolatzeko teknikak eta prozesuak erabiltzeko gaitasuna, bai eta irudi finkoaren alorreko sorkuntza-teknikak eta sorkuntza-prozesuak erabiltzeko ere, hala ingurune analogikoetan nola digitaletan.</p> <p>2.7. Irudiaren konposizioaren teknikak eta prozedurak ikus-entzunezko euskarrietan aplikatzeko gaitasuna, lege klasikoen eta irudiaren historiaren higikunde estetiko eta kulturalen ezagutzatik abiatuta, informazioaren teknologia berrien bitartez.</p> <p>2.12. Ikus-entzunezko kontakizunak aztertzeke gaitasuna, ikus-entzunezko obren azterketaren oinarritzako parametroak aintzat hartuz, eta ikono bidezko mezuak garai historiko jakin bateko baldintza soziopolitiko eta kulturalen testutzat eta produktutzat hartuz.</p>	
<p>Ikasgaiaren ekarpena profil profesionalari Ikasgai honekin ikasleak irudi finkoen irakurketa eta interpretazio kritikorako behar dituen oinarritzako ezagutza teorikoak eskuratuko ditu. Arreta berezia eskainiko zaio irudi fotografikoaren irakurketa eta interpretazioari. Halaber, ikasleak irudi finkoak hartzeko ezagutza eta gaitasuna garatuko du. Ikasgai honen helburua ikasleari ikus-entzunezko komunikazioaren etorkizuneko profesional gisa irudia zuzentasunez interpretatzeko oinarriak eskaintzea da.</p>	
<p>Irakaskuntza-ikaskuntza metodologia, eta beronek ikasleak eskuratu beharreko gaitasunekin duen harremana.</p> <ul style="list-style-type: none"> ✓ Proiektuetan oinarritutako metodologia (ABP), ikasgaiari eta profil profesionalari dagozkion gaitasunak garatzeko. Metodologia horrek ikaslearengan jartzen du arreta osoa. Ikasleek, elkarlanean, eta tutorearen laguntzarekin, argazki-erreportaje bat egin beharko dute, hasieratik hasita gelan erakusgai jartzeraino. ✓ Kasu teoriko zein praktikoen azterketan oinarritutako metodologia. ✓ Elkarlanean oinarritutako metodologia. 	
<p>Hezkuntza-jarduerak. Jarduera presentzialak (%40):</p> <ul style="list-style-type: none"> ✓ Eskola magistralak eta teorikoak. ✓ Eskola praktikoak: kasu jakin batzuei buruzko ariketak. ✓ Kasuen azterketa: ✓ Erreportajea egiteko tutoretzak. 	

- ✓ Banakako eta taldekako lana.

Jarduera ez presentzialak (%60):

- ✓ Banakako ikasketa eta lan autonomoa: irudi finkoen irakurketa eta azterketa.
- ✓ Taldekako ikasketa eta lan autonomoa: argazki-erreportajea + 700-1.000 hitzeko idazlana.
- ✓ Zarauzko Photomuseumera bisita.

Gaitasunak eskuratzeko ebaluazio-sistema

Ebaluazio jarraitua eta prozesu-ebaluazioa:

- ✓ Praktikak egitea.
- ✓ Ahozko aurkezpenak.
- ✓ Banakako eta taldekako lanen kalitatea.
- ✓ Ikasleen parte hartzea mintegietan.
- ✓ Ezagutzen ebaluazioa azken proba baten bidez.

Edukien laburpena

IRUDIAREN TEORIA

- Errealitatea eta errealitatearen irudikapena irudiaren bidez.
- Irudiak interpretatzeko metodoak.
- Irakurketa objektiboa (puntua, lerroa, enkoadratzea, argia, eszenatokia, ikonizitate-maila) eta subjektiboa (interpretazioa).
- MELIR metodoa.
- Ikusi-hizkuntzaren tresnak (neurria, itxura, kolorea, argia, egitura, antolaketa eta ikusi-erretorika)
- Irudiaren funtzioak.
- Iruditik esanahira.
- Begirada taxutzea.
- Pixela eta errealitate birtuala.

ARGAZKIGINTZAREN HISTORIA: gainbegiratze laburra hasieratik gaur egun arte.

Kasuen eta arte higikunde batzuetan azterketa: Piktorialismoa, Argazkigintza zuzena, Abangoardiak, Objektibotasun Berria, Argazkigintza dokumentala.